



PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA 2010-2011KO PRESTAKUNTZA PLANA. PRESTAKUNTZA ATALA

IKTak (Gauss proiektua) esperimentatzen (ordenagailuen) ikasgelan

Izenburua: IKTak (Gauss proiektua) esperimentatzen (ordenagailuen) ikasgelan.

Modalitatea: Tailerra

Eta: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

Norentzat:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko matematika irakasleei, bai eta Zientzia eta Matematika esparrukoei ere.

Justifikazioa

IKTak irakaskuntzan integratzea erronka zaila da, eta, lortzeko, ekipo informatikoez gainera, baliabide didaktiko egokiak ere behar dira, bai eta ikasleekin praktikan jartzea ere.

Era berean, maiz esaten da IKTak aukera bat direla hobetzeko eta aldaketa metodologikoa egiteko.

Instituto de Tecnologías Educativas (ITE) delakoak Gauss proiektua sortu du (<http://recursostic.educacion.es/gauss/>) Escuela 2.0 programaren barnean, hezkuntzako material digitalak eskaintzeko; horien bidez, sormenean oinarritutako modu atseginak erabili nahi dira matematika ikasteko. Gauss proiektuak 500dik gora jarduera ditu gaur egun, José Luis Álvarez eta Rafael Losada irakasleek diseinatutakoak; horietan DBH osoko matematika curriculumak jorratzen dira (baita Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak ere). Jarduera interaktibo horietan gaitasun orokorren praktika lehenesten da ebazteko algoritmo zehatzen aurretik, eta ikasleak bere kasa esku hartu, behatu eta ondorioak atera behar ditu egoera zehatz batzuetan.

Tailer honen bidez irakasleak animatu nahi dira Gauss proiektuaren material horiek ordenagailuen gelan esperimentatzera (edo arbel digitalarekin), elkarlanean egiteko aukera emanda, ikaskideekin partekatuta esperimentazio horretan sortutako ideiak eta hausnarketak.

Beste prestakuntza jarduera batzuekin alderatuta, inplikazio maila handiagoa eskatzen zaie parte hartzen duten irakasleei.

Ikasgelan ordu bat eman behar da astean (DBHko talde berarekin) ikasgelan praktikan jartzeko, eta prest egon behar da gela birtualean esperientziaren jarraipen sistematiko bat partekatzeko (gelako eguneroko baten bitartez).

Helburuak:

- ✓ Esperimentatzea eta irakasleen lana hobetzea ordenagailuen ikasgelan.
- ✓ Ordenagailua ikasteko tresna bezala modu jarraituan erabiltzean sortzen diren mota guztietako arazoak detektatzea.
- ✓ Ikasleek ikasteko modu horren aurrean duten jarrera aztertzea, eta ondorioak diagnostikatzea.
- ✓ Gauss proiektuaren item didaktikoen eraginkortasuna baieztatzea aurreikusitako ikasketa-helburuak lortzeko.
- ✓ Hausnarketa egitea eta ideiak partekatzea beste irakasle batzuekin IKTak matematika irakasteko erabiltzearen zailtasunei eta aukerei buruz, baita dakartzaten edo erraz ditzaketan aldaketa metodologikoei buruz ere.
- ✓ Plataforma telematikoko bat erabiltzeak errazten duen elkarlanerako ikaskuntza bultzatzea.

Edukiak:

- ✓ Gauss proiektua gelan aplikatzeko estrategiak.
- ✓ Gauss proiektuaren item didaktikoak gelan esperimentatzea.
- ✓ Esperimentazioa ebaluatzea.

Metodologia:

Hiru esparrutan garatuko da jarduera:

- ✓ Ikasgelako praktika. Horretarako, eskola saio bat erreserbatu beharko da astean —urritik maiatzera— DBHko talde zehatz batean, propio Gauss proiektuaren item didaktikoak praktikan jartzeko.
- ✓ Aurrez aurreko saioak: Horietako lehenbiziko(et)an, tailerraren nondik norakoak azalduko dira, eta gela birtuanean egin beharreko lanak ere bai. Gero, esperientziak partekatuzeko balioko dute, baita erabakiak hartzeko edo sortzen diren arazoei aurre egiteko ere.
- ✓ Ikasgela birtuala edo laguntzarako webgunea: (<http://irati.pnte.cfnavarra.es/caps/moodle/course/view.php?id=76>). Han ere, materialak, ideiak, gelako egunerokoak, ikasleen ebazpenak... partekatuko dira

Lekua eta data:

Aurrez aurreko saioak Iruñeko ILZn egingen dira, 17:30etik 19:30era (aipatutako kasuan izan ezik), hurrengo sei asteartetan (taldeak hori aldatzea erabaki ezean):

- 2011ko irailaren 20a
- Urriaren 4a
- Azaroaren egun batean (irailean zehaztuko da), 17:00etatik 20:00etara (José Luis Álvarezekin)
- 2012ko otsailaren 7a
- Maiatzaren 8a
- Maiatzaren 29a

Ikasgelako esperimentazioa ikasturte osoan egingen da, irailaren bukaeratik maiatzera, astean saio bat eginez.

Lan indibiduala eta elkarlana ikasgela birtuanean egingen dira. *Gelako egunerokoa* idatzi beharko da han behar den maiztasunez, eta gainerako parte-hartzaileek ere hori irakurtzeko aukera izanen dute.

Hizlaria:

Aurrez aurreko saio batean José Luis Álvarez izanen dugu hizlari; Avilésko 5. DBHko irakaslea da José Luis Álvarez, eta Gauss proiektuaren materialak egin ditu Rafael Losadarekin batera. Gainerako saioetan ez dago hizlaririk, baina Ana Turunbai aholkulariak aurrez aurreko saioen koordinazioa eta gidaritza hartuko ditu bere gain.

Deiegilea: Iruñeko ILZ, eta Tuterako ILZrako zabalik.

Arduraduna:

Ana Turunbai Izurdiaga, matematika aholkularia Iruñeko ILZn
948 29 17 13 matematicas.cap.pamplona@pnte.cfnavarra.es

Iraupena (egiaztatu beharreko orduak): 75 ordu (13 ordu aurrez aurreko saioetan, eta gainerakoak ikasgela birtuanean egindako lan indibidualean)

Hasiera data: 2011ko irailaren 20a

Bukaera data: 2012ko maiatzaren 29a

Izena emateko aldia: 2011ko ekainaren 23tik irailaren 14a arte.

Leku kopurua: 25.

Parte-hartzaile kopurua, gutxienez: 6

Betebeharrak:

- Posta elektronikoko kontu bat izatea (eta izena emateko inprimakian idaztea hori).
- Prest egotea astean eskola bat emateko (urritik maiatzera), DBHko lau mailetako edozeinetako talde batean, Gauss proiektuaren itemak (parte hartzaile bakoitzak zeintzuk aukera ditzake, eta zer unetan) ordenagailuen gelan lantzeari buruz (edo, beste batzuetan, ohiko ikasgelan arbel digitalaren bitartez).
- Ikastetxeko ordenagailuen gela erabiltzeko aukera nahikoa izatea (edo, ezin bada, eramangarrien armairua) astean ordubetez erreserbatzeko.

Oharrak:

- Izen-ematea *on line* egiten da, Iruñeko ILZko webgune berriaren bitartez, *Deitutako jarduerak eta izen-emateak* atalean (http://dpto.educacion.navarra.es/formacionprofesorado/index.php?option=com_dmarticlesfilter&view=articles&Itemid=376&lang=eu).
- Eskariak eskainitako lekuak gainditzen baditu, eskatzaile guztiei emanen zaie, irailaren 15ean eta *e-postaren* bidez, onartuak zehazteko sistemari buruzko informazioa (*ikasgela birtualean* "matrikula" baieztatzen lehenbizikoak izanen dira).
- Jarduera gainditu eta dagokion ziurtagiria jasotzeko, honako hau beharko da:
 1. Parte-hartze aktiboa gela birtualean, "gelako egunerokoa" barne; han, gutxienez, ordenagailuak edo arbel digitala erabiltzeko 15 eskola-saioren garapena zehatua egon beharko du.
 2. Gutxienez, aurrez aurreko saioetako orduen %75era joan beharko da.

Hizkuntza(k): gaztelania aurrez aurreko saioetan; gaztelania edo euskara ikasgela birtualean